BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5152

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 6koa, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde-ordezkariarena, honako instalazio hauen eraikuntzak eraginpean hartutako finkak okupatu aurretiko aktak egiteko deialdia egiten duena: Hernani-Arkale 1 eta 2 lineetatik Electroquímica Hernani TAEra doan deribazio bikoitza den 132 kV-ko linea elektrikoa, Hernaniko udalerrian. Erref.: 24040/AT-H-2012-156.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2013ko abuztuaren 14ko Ebazpenaren bitartez, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. enpresari baimena eman zitzaion Hernani-Arkale 1 eta 2 lineetatik Electroquímica Hernani TAEra doan deribazio bikoitza den 132 kV-ko linea elektrikoa Hernaniko udalerrian instalatzeko, eta aldi berean horren Onura Publikoa deklaratu zen.

Sistema Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan jartzen duenez (1997-11-28ko BOE), aipatutako baimena eta Onura Publikoko deklarazioa emanez gero, proiektuaren eraginpean geratzen diren ondasun eta eskubideak okupatu egin behar dira nahitaez, eskubide eta ondasun horiek berehala okupatzeko beharra dago eta berehalako okupazioak dakartzan ondorioak legez zehaztuta daudenak izango dira, hain zuzen ere, 1954ko abenduaren 16an onartu zen Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutakoak, eta, erregistroari dagokionez, lege horren 53. artikuluan zehaztutakoa hartu beharko da kontuan.

Gipuzkoako Lurralde-ordezkariak, honenbestez, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren eraginpean geratu diren ondasun eta eskubideen jabe eta titularrei dei egitea ebatzi du Hernaniko udaletxean, udal horretan baititu eraginpeko ondasunak, ondasunak okupatu aurretiko aktak egiteko eta, beharrezkoa izanez gero, behin betiko okupaziorako aktak egiteko. Ez da ondasunak ikustera joateko eragozpenik izango, beharrezkoa bada.

Interesdunek eta eraginpean diren ondasunekiko edonolako eskubide edo interesa duten guztiek azaldu beharko dute bilera horretara. Nahi izanez gero, behar bezala baimendutako ordezkoa bidaltzeko aukera ere badute. Dena dela, bilera horretara titularitatea egiaztatzeko agiriak eta kontribuzioaren azken ordainagiria eraman beharko dira. Peritua eta notarioa ere eraman daitezke.

Aurretiko aktak 2014ko urtarrilaren 16an egingo dira. Agindua titular guztiei jakinaraziko zaie, banan-banan, zitazio-zedula bidez. Zedula horretan, tokia, eguna eta ordua zehaztuko da. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. atalean agindutako beste argitalpen-baldintza guztiak ere beteko dira.

Desjabetze-espedientean, enpresa onuraduna Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. izango da.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Araudiaren 56.2. artikuluak xedatutakoaren arabera, argitaratutako zerrendan agertu ez diren interesdunek edo eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek Donostiako (20006) Easo kaleko 10. zenbakian dagoen Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan idazki

bidez egoki deritzotena adierazi ahal izango dute aurretiko aktak egiteko eguna arte, eraginpeko ondasunak eta eskubideak zerrendatzean egon daitezkeen okerrak zuzentzearren.

Donostia, 2013ko azaroaren 6a.

Lurralde ordezkaria,
JAVIER LÓPEZ LARRINAGA.

FINKAK OKUPATU AURRETIKO AKTAK EGITEKO DEIALDIA

Erref.: 24040/AT-H-2012-156

Lursaila	Udalerria	Jabea	Helbidea	Hila	Eguna	Ordua
39; 46	Hernani	Iñaki Errazkin Ugarte	Martindegi bailara 39, 1.a – 20120 Hernani	Urtarrila	16	9:00
49; 59; 62; 63	Hernani	Antonio Errazkin Beldarrain	Martindegi bailara 38, 1.a – 20120 Hernani	Urtarrila	16	9:45
82; 84	Hernani	Asensio Barrenechea Aguerrezabalaga	Martindegi bailara 33, 1.a – 20120 Hernani	Urtarrila	16	10:30
55	Hernani	Rhone Poulenc Química España S.A.	Capitan Haya 1 – 28020 Madrid	Urtarrila	16	11:15
33	Hernani	Hernaniko Udala	Gudarien Enparantza 1 – 20120 Hernani	Urtarrila	16	12:00
101	Hernani	Sprilur, S.A.	Ibañez de Bilbao, 28 – 48009 Bilbo	Urtarrila	16	12:45